



## Udalekuetarako 10.000 plaza eskaintzen dituzte gazte boluntarioek

- Euskadiko 78 taldek **162 proposamen** prestatu dituzte oporretarako.
- [www.egk.org](http://www.egk.org) atarian eskegi dute udaleku ireki, kanpaleku, auzolandegi eta nazioarteko topaketen eskaintza



**Gasteizen, 2012ko maiatzaren 10ean.** Prest da 'udako operazioa'. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 78 gazte-taldek ikasturte osoko lanaren emaitza aurkeztu dute: 162 udaleku eta opor-jarduera. Guztira, bolondres-elkarte horiek 10.000 plaza eskaintzen dituzte udaleku, auzolandegi, topaketa eta bestelako udako-ekintzetan parte hartzeko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan astialdi-esparruko federazio eta eskolak biltzen dituen Astialdi Foroak opor-proposamen horiek guztiak biltzen dituen hiru gida aurkeztu ditu gaur, *Yes, we camp! La cabra tira al monte. Goazen kanpamenduetara!* Lelopean Gasteizen burututako informazio eta jai-egitarau batean. Gida bat aurkeztu dute EAE-ko lurralde bakoitzeko, antolatzaileen jatorriaren arabera. Zehazki, Araban 13 taldek hogeita bi kanpaleku prestatu dituzte; Bizkaian, 43 elkarteek 80 txanda diseinatu dituzte; eta Gipuzkoan, 22 erakundek 60 plan proposatzen dituzte.

Ekainaren 23tik hasita eta irailaren 7ra arte, euskaraz zein gazteleraz, bi urtetik gorakoentzat, gustu guztietarako dago: udaleku irekiak auzoan edo herrian, kanpaldi klasikoak Euskal Herrian edo Errioxa, Kantabria eta Huesca bezalako beste toki batzuetan eta kanpaleku ibiltariak kostaldetik eta Done Jakue bidean, besteak beste. Abentura-programak eta auzolandegiak ere antolatu dituzte, bai eta beste gazte-talde batzuekin elkartrukeak ere (zehazki, Italiako Rimini hiriko gazteekin).

Eta, hori guztia, **balio erantsi** batekin, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak azpimarratu duenez: "Jarduera hauek *plus sozial* bat dute; izan ere, ikasturtean zehar modu boluntarioan lan egiten duten astialdi-taldeek antolatzen baitituzte,

1



Consejo de la Juventud de Euskadi





eta elkarte horiek elkartegintzatik eta boluntarioriztatik abiatutako balore-heziketan eta jendarte-eraldaketan sinisten baitute”.

**Izena-emateko,**  
[www.egk.org](http://www.egk.org)  
webguneko  
gidak eskuratu  
behar dira

Gainera, ez dute udaran bakarrik lan egiten: ikasturtean zehar bere auzo eta herrietan buru-belarri aritzen dira ere, jende guztiarentzat irekiak diren ekintzetan. Udalekuak, beraz, ikasturtearen gailurra baino ez dira. Eta non aurkitu daitezke talde horien eta bere udarako planen gidak, eta izena emateko kontaktuak? Gazteriaren Kontseiluko webgunean, [www.egk.org](http://www.egk.org).

Paperean ere eskuratu daiteke, EGK-k Gasteizen, Bilbon eta Donostian dituen egoitzetan.

#### “Mundua suntsitzeko” argazkiak

Udaleku-eskaintzari buruz informatzeaz gain, gida horien argitalpenak beste helburu batekin egiten da ere: egunerokotasunean astialdi-boluntariorizak egiten duen lana ikustarazi. Izan ere, udaleku-zerrendak beste kanpaina zabalago batean txertatutako neurri bat dira; *Mundua suntsituko duen belaunaldia... berri zere eraikitzeko* kanpaina, alegia. Ekimen honekin, astialdi federazio eta eskolek “*ni-ni* belaunaldiaren diskurtsoari aurre egin eta jendartearen eraldaketarekin konpromisoa duten milaka gazteren lanaren balioa mahai gainean jarri” nahi dute. Asmo horrekin iaz **argazki lehiaketa** bat abiatu zuten. Orain, lehiaketa irabazi zuten lanek irudiz-jantzi dituzte aurtengo udalekuen gidak.

**Informazio gehiago eta elkarrizketak:**

615 74 99 29 (Iván, Astialdi Foroko koordinatzailea)





## Jóvenes voluntarios ofrecen 10.000 plazas en colonias y actividades de verano

- Más de 70 grupos de tiempo libre de Euskadi han organizado un total de **162 propuestas** de vacaciones educativas.
- La lista de **campamentos**, campos de trabajo, colonias abiertas y encuentros internacionales está disponible en [www.egk.org](http://www.egk.org)



**Vitoria-Gasteiz, 10 de mayo de 2012.** Ya está todo a punto para la 'operación verano': más de 70 grupos de tiempo libre y asociaciones de voluntarios de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa han trabajado durante todo el año para organizar nada menos que 162 campamentos y actividades estivales. En total, ofrecen cerca de 10.000 plazas en *udalekus*, campos de trabajo, intercambios, colonias abiertas y otras modalidades de ocio educativo.

La coordinadora de escuelas y federaciones de tiempo libre Astialdi Foroa del Consejo de la Juventud de Euskadi ha presentado hoy, mediante una jornada informativa y festiva que han llevado a cabo en Vitoria bajo el lema *Yes, we camp! La cabra tira al monte. Goazen kanpamenduetara!*, las **guías Astialdia Astindu! Despierta tu tiempo libre**, en las que se recogen todas las propuestas vacacionales organizadas desde el voluntariado. En concreto, la plataforma asociativa ha publicado tres desplegados, uno por cada territorio de la CAPV -de acuerdo con el origen de los grupos que organizan las actividades-. En Álava, 13 agrupaciones han organizado veintidós campamentos; en Bizkaia, 43 asociaciones han diseñado 80 colonias y actividades estivales; y en Gipuzkoa, 22 grupos sugieren 60 planes de verano.

Tienen propuestas para todos los gustos, en euskera y castellano y para todo tipo de personas a partir de los dos años. Entre el **23 de junio y el 7 de septiembre**, llevarán a cabo colonias abiertas en el barrio o el pueblo, además de campamentos clásicos en Euskal Herria y otros rincones como La Rioja,

3



Consejo de la Juventud de Euskadi





Cantabria o Huesca. Asimismo, pondrán en marcha *udalekus* itinerantes para recorrer la costa vasca o el Camino de Santiago, entre otras rutas.

Los pasos para  
**apuntarse**  
pueden  
consultarse en  
[www.egk.org](http://www.egk.org)

También proponen programas de deporte-aventura, así como campos de trabajo e intercambios con otros grupos juveniles (concretamente, con jóvenes de Rimini –Italia-). Y todo, con un **valor añadido**, tal y como ha señalado el Consejo de la Juventud de Euskadi: “Estas actividades tienen un *plus social*, que consiste en que las llevan a cabo grupos de tiempo libre educativo que trabajan de forma voluntaria porque creen en la educación en valores y en la transformación social desde el voluntariado y el asociacionismo”. Y para ello, no sólo organizan colonias, sino que se implican en su entorno más cercano **durante el resto del año** a través de actividades abiertas a todo el mundo. Las colonias son, por tanto, el colofón del curso.

¿Dónde puede consultarse el listado de grupos y planes para apuntarse? En la página web del Consejo de la Juventud de Euskadi, [www.egk.org](http://www.egk.org). También puede recogerse en papel en alguna de las tres sedes de esta red juvenil en Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia.

### Fotos “para destruir el mundo”

Además de informar a las personas jóvenes y a las familias sobre la oferta de colonias, la publicación de estas guías pretende visibilizar el trabajo que realiza de forma cotidiana el voluntariado juvenil. Los desplegados de campamentos son así parte de una campaña más amplia bautizada hace dos años como *La Generación que destruirá el mundo... para reconstruirlo*. Se trata de una *operación* puesta en marcha por las federaciones de tiempo libre para “hacer frente al discurso de la *generación ni-ni*” y poner en valor el trabajo que llevan a cabo miles de personas jóvenes comprometidas. En el marco de esta iniciativa, el año pasado llevaron a cabo **concurso** de fotos. Ahora, las imágenes ganadoras encabezan los desplegados de las actividades de verano.

Para más información, reportajes y entrevistas:  
615 74 99 29 (Iván, coordinador de Astialdi Foroa)

